

LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE ETA *O.TEN* GAZTAROA *NEURTHITZETAN*: HAIN HURBIL, HAIN URRUN

Ana M. TOLEDO LEZETA
Deustuko Unibertsitatea

Ez da erraza Bernard Etxeparek Bordelen 1545ean argitara eman zuen *Linguae Vasconum Primitiae* eta Arnaud Oihenartek Parisen 1657an kaleratu zuen *O.ten gaztaroa neurthitzetan*¹ erkatzeko tentazioari uko egitea. Izan ere, Oihenartek literaturaren barrutian burututako jardunetik jasotzen den irudipena zera da, aldez edo moldez Etxepareren idazlana izan zuela gogoan berea mamitzerakoan. Zinez, iduri du Oihenartek bere *O.ten gaztaroa neurthitzetan* egitean begirada bat baino gehiago eman ziola Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiaeri*.

Etxepare bezala neurtitzaz baliatu zen eta ez zuen behar izan gai berririk neurtitzok paratzeko, hark erabilitako bi gai nagusietara eta bi gai nagusi horietara soil-soilik jo baitzuen. Alabaina, idazlana begiratzea edo gogoan hartzea ez zen izan eredu gisa jarraitzeko, baizik eta, nahiz lehen aldi zehatz hau, nahiz bere lehen aldi oro -euskaraz ondutako neurtitzarena, jakina- ukatu

¹ Pariseko Liburutegi Nazionalean gordetzen den alea izango da aztergai. Ale honen faksimila Lopez Mendizabalen etxean, Tolosan, argitaratu zen 1936an. Hala ere, edizio eskuragarriagora jo da aipamenak egiteko, zehazki honakora: ALTUNA, Patxi; MUJICA, Jose Antonio (Ed.) (2003): *Arnaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Proverbes et poesies basques. Proverbios y poesías vascas*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo. Baina, edizio honek Baionako Herri Liburutegian gordetzen den aletik jaso dituen poemak edo poemien puskak gogoan hartu gabe; alegia, 1657ko ediziooko poema-multzotzat aurkezten dutenera mugatuko da azterketa.

eta, jauzi kualitatiboa egiteko: Etxeparek baliatutako langai berdinak jorratuz, honek koplak moldatzeko erabilitako moduarekin hausten du. Azken batez, ematen du gai berdinez baliatzeak bazuela abantailarik: oso modu gardenean erakusten zuen zenbaterainoko garrantzia duen lantze-moduak.

Bi idazleen arteko antzekotasunak ez dira mugatzen biak neurtitza adierazpen-modutzat hautatu izanera eta erlijioa eta maitasuna gaiez elikatu izanera beren sorkariak mamitzeko. Bada besterik ere, hala nola biak premiaren bati erantzun gisa argitaratu izana beren idazlanak edo nork bere idazlanarekin jauzi kualitatiboa eragin nahi izana, orain aldiak erakusten zion egoera gainditzeko...

Hizkuntza dute beren idatziak moldiztegiratzeko akuilu; euskarazko adierazpenarentzat barruti berriak irabazi nahi dituzte: hizkuntzaren erabile-ra-esparruak eguneratzea jomuga izatea dute lokarri. Eginkizun hori betetzeko koplak paratu zituzten gai berdinak erabiliz. Hortik elkarrengandik hurbil dauden idazlanak gauzatu izana. Haatik, somatzen dituzten premiak desberdinak dira eta, honenbestez, baita bakoitzak gainditu nahi duen erronka ere. Baliatutako gai berdinak, berriz, elkarrengandik urruntzen diren bi idazlan mamitzeko erabili zituzten. Gai berdin hauen kodeketa arras modu desberdinean egin zuten. Kodeketa desberdin horrek agerian uzten du bataren eta bestearen idazlanei darien ikuskera desberdina. Oihenartek ez zuen idatzi jadanik idatzita zegoen idazlana, idatzita zegoena berritza zetorrena baino. Hortik elkarrengandik urrun dauden idazlanak izatea.

1. HAIN HURBIL

Eginkizun bat bete nahia da luma hartu, idazlana mamitu eta argitara ematera bultzatzen dituen. Biak euskalgintzan atzematen duten hutsuneren bat betetzera datoz: hutsune desberdinak, jakina. Mende luze bateko aldea dago Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiaeren* (1545) argitalpenetik Oihenarten *O.ten gaztaroa neurthitzetanen* (1657) argitalpenera. Dirudienez, denbora ez zen alferrik igaro, zeren eta Oihenartek somatzen duen hutsunea ez da Etxeparek somatu zuen bera.

Idazlanari egindako hitzaurrea dute azalpenetarako leku. Nork bere liburuari eginiko hitzaurrean argitu zuen zein hutsune betetzeko lantegia hartzen zuen bere gain. Hor adieraziko du bakoitzak bere testua gauzatzeko izan dituen arrazoiak. Etxeparek liburuaren argitalpena babesten zion Bernard Leheterentzat moldatutako eskaintzan bere harridura helarazten du euskaldunen artean letratu handiak egonik, inori ez zaiolako otu euskaraz idaztea; Oihenartek irakurleari zuzendu zion hitzaurrean dioenez, neurtitz zalea da

euskalduna, baina bakar batek ere neurtitz zuzenik ondu ez izanak, berak paratuta zeuzkanak argitara ematera behartu dute.

Adierazitako arrazoietatik ondorioztatzen denez, beharra izan dute akui-lu; izan ere, nahiz batak, nahiz besteak aitortzen du euskaldunen artean bade-la aditurik edo zaleturik garatzera doan langintzan. Aditu edo zaletu horiek, ordea, ez diote erantzun erronkari: Etxeparerentzat, zientzia guztietan euskaldun letradun handiak dauden arren, inork ez du hartu bere gain euskaraz idazteko ardura; Oihenartentzat, berriz, euskaldunek hitz neurtuaz baliatzea gogoko izanagatik, bakar batek ere ez du egin neurtitz zuzenik. Honela bada, bata eta bestea, hutsune bat betetzera datoz; inork bere gain hartu ez duen zeregina burutzera.

Hitzaurreon arabera, batak eta besteak hizkuntza dute beren idatziak moldiztegiara eramatera bultzatu dituen. Etxeparek herri-hizkuntza idazketaren iragazitik iragazi eta, argitara emanda, beste hizkuntzen parean jarri nahi du: herri-hizkuntzatik hizkuntza landurako jauzia egin; Oihenartek, bere aldetik, zuzena ez den neurtitzetik neurtitz zuzenerakoa. Nahiz batak, nahiz besteak hizkuntzara biltzen du arreta: lehenak euskalduna ondare idatziren baten jabe egitea nahi du, bigarrenak neurtitz zuzenak paratzeko eredia ipini euskaldunaren esku. Biak bat datoz beren jardunari heltzeko daukaten zergatia aitortzerakoan: euskara esparru berrietara irekitzea dute helburu. Horrenbestez, hizkuntzak barruti berriak bereganatzea dute xede, euskara inguratzen duten herri-hizkuntzek jadanik bereganatuak dituzten esparruak, hain zuzen ere. Euskara hizkuntza horien parean kokatzea da partekatzen duten asmoa eta nork bere bidea egingo du asmo hori gauzatzen joan dadin.

Ondare idatziaren oinarriak jartzeko neurtitza hautatu zuenez Etxeparek, neurtitzaz baliatzeak lotzen ditu bi idazlanak. Baita neurtitzok ontzeko gai berdinak erabili izanak ere. Gai mailako aldea, Etxeparek maitasunaz eta erlijioaz zihardutenez gain, besterik ere jorratu izanean dago. Dena den, bi gai hauetan bat etortzea oso nabarmena da; izan ere, deboziozko koplak moldatu zituztenean, biek erlijioak irakatsitako egien berri eman zuten; maitasunezko koplak ondu zituztenean, berriz, biek norabide bakararra duen maitasunaz eta norabide bakararra duen maitasun honek maitalearengan eragiten dituen efektuez jardun zuten.

Maitasun mundutarra gaitzat hartu zutenean, kexua zerion maitemindua plazaratu zuten. Bi idazlanetako maiteminduak kexu dira maite duten damak entzungorrena egiten duelako helarazten dioten laudorio, eskari eta abarren aurrean. Ordurako ere topikoa zen alderditik planteatzen dute gaia: norabide bakarreko maitasunaz elikatu ziren beren neurtitzak paratzeko. Bi idazleen idazlanak elkarrengandik urruntzen dituen ez da gaia, gaiaren kodeketa baino. Aldea, dispositio eta elocutio mailakoa da, ez inventio mailakoa.

Inventio mailako antzekotasunak nabariak dira. Nola Etxeparek irudikatutako maiteminduak, hala Oihenartek irudikatutakoak maite duen andrea, andreetan ederrena da. Honela dio Oihenartek itxuratutako maiteminduak Grazianaz:

Ederrenen bardina / (ezpadohat' aitzina) / da begitartez eta (X, 17-19)².

Ildo beretik aurkezten du, berriz, izen propioz izendatzen ez duen beste dama bat:

Haren eder izana / da hain gauza bekana, / ezi eztuela kiderik / baita jenden errana (XII, 9-12).

Etxeparek taxututako maiteminduak maite duen andreak ere, gainontzeko guztiak irabazten ditu edertasunean:

Artizarrak berzetarik abantaila darama:
halaber da anderetan ni penatzen nuiena;
hanbat da eder eta jentil, harzaz erho narama (V, 21-23)³.

Andre eder jentil batez hautatu zait begia,
herri orotan gauza oroz eztu bere paria (XII, 1-2).

Andre eder horrek zauria sorrarazten du. Bihotzean eragindako zauri, ebaki edo kolpe bezala sentitzen dute maitemintzea bi idazleok mamitutako maiteminduek. Etxeparerenak dioenez,

Harzaz orhit nadinian, bihotza doat ebaki (VI, 6).

Zure irudi ederrak eta maina jentilak
gaizkiago zauri nizi ezi dardo zorrotzak (IX, 37-38).

Antzera gertatzen zaio Oihenartek irudikatutako maiteminduari:

Ni hala-hala / tiraz bezala / hik joz geroz bihotzean (III, 31-33).

Etxeparek maitasun mundutarrean jasaten diren atsekabeak azaltzen ditu. Maiteminduak aurrez-aurre izan ditzakeen egoera desberdinetan pairatzen dituen sufrimenduen berri ematen du.

² Patxi Altunak eta Jose Antonio Mujikak prestatutako edizioan zenbaki erromatarrarekin koplaren zenbakia adierazi dute eta zenbaki latindarrarekin ahapaldiarena. Azterlan honetan zenbaki erromatarraren eginkizuna bere horretan gordeko da, ez horrela, latindarrarena, aipatutako bertso lerroaren zenbakiaren berri emateko erabiliko delako.

³ Euskaltzaindiak 1995. urtean argitaratutako edizioa erabiliko da. Edizio honetan egi-ten den bezala, zenbaki erromatarrarekin koplaren zenbakia adieraziko da eta latindarrarekin bertso lerroaren zenbakia.

Hala, “Ezkonduien Koplak” izendatzen duenean dioenez,

Honestea berzerena erhogoa handi da,
plazer baten ukhenen du anhitz malenkonia:
begiez ikus, ezin mintza; han dakusat nekia;
beriareki datzarian enetako aizia (IV, 11-14).

Halaber, penetan bizi da “Amoros sekretuki dena”:

Ene gaizki penatzeko hain ederrik sortu zen,
gaoaz eta egunaz ere gaizki nizi penatzen;
harekila bat banadi, bihotza zait harritzen,
neure penen erraitera are eniz ausartzen (V, 9-12).

Edo “Amorosen partitzia” koplako maitemindua:

Nik hargana hanbat dizit amorio handia,
harekila egoitiaz ezpaneinde enoia;
harganiko partitzia ene eihargarria;
berriz ikus dirodano, bethi malenkonia (VI, 7-10).

Sentimendu bertsuak adierazten ditu “Amoros jelosia”ko maiteminduak:

Jende honak, bihotza daut bethi ere nigarrez,
neure amore xotiltua galdu dudan beldurrez (VII, 23-24).

Gaixotasuna sortzen du maitasun mundutarrak. Amore-minak eraginda-ko gaixotasunaren sintomak nabarmenak dira: gizona erotu, amorrarazi, hor-ditu eta desesperatu egiten du. Ez hori bakarrik: gauez eta egunez hotzak eta beroak jasateaz gainera, zentzua eta zuhurtasuna galtzen ditu. Luza daiteke gaixotasunaren sintomen zerrenda: amore-minak malenkonia sortu, nekea eragin eta loa galarazten dio gizonari. Baita bihotza harritu, ebaki, negarrez jarri eta erre ere. Are gehiago, amaierarik gabeko sufrikarioetan murgiltzen du: bihotzeko lasaitasuna kendu, dardo zorrotzak baino zauri gaiztoagoa egin bihotz horretan... Horrela, ametsetan eta iratzarririk dolorea eragin eta, gauez eta egunez penatzen du, ezin hilez bizirik jarraitzera zigortzeraino.

Erantzunik jasotzen ez duen maitasuna da, halaber, Oihenartek bere poetara eramandakoa. Agerikoak dira amore-minak eragindako gaixotasunaren sintomak:

Non ere, noreki ere bainiz, / pena dut zutaz pensatzez (I, 25-26).

Alabana, / enegana / orano eia zurerik / heldu denez / deus ogenez / eta gaitzez bertzerik (II, 19-24).

Erran baderaukat ezi / oro harena nizala, / nehor ere hura bezi / onhetsirik eztudala, / bana horregatik hura / ezta nizaz arregura (VII, 7-12).

Oihenartek sortutako maitale maiteminduaren adierazpenen aurrean gorazaltzen da maitea:

Zeren berhetuz zuk gorreti / baitagidazu zur'aldeti; / zeren berhetuz zuk gorreti / baitagidazu horla beti (I, 53-56).

Baita gogor ere:

Zuzaz bertzerik / nehor maiterik / eztudalarik herrian, / zu bezain gorrik / ez hain gogorrik / eztudala d'agerrian (IV, 1-6).

Gor eta gogor ez ezik, harro ere ager daiteke:

Zu zerk hain haitu / egiten zaitu / nizaz ez gogarazera (IV, 58-60).

Grazianak, kasu, ezaugarri guzti horiek bere baitan biltzen ditu:

Elkoit dakit elkorra, / esker gabe, gotorra / del' enetzat, bait' are / harri bezain gogorra (X, 41-44).

Azkenean, amore-mina jasan ezinik bizi den "ni" a, heriotza desiratzera helduko da:

Noiz ere bainaiz hauzaz orhitzen / zin-zinez baniz hil-nahitzen: / hiltzea gaitz, gaitzago bana / mait'uken et' ez mait' izana (V, 41-44).

Behar dudan gero zuzaz net etsitu / et' esteiaritzat lurrean gelditu, / betor betor herioa, / bizi' ene hastioa (VI, 33-36).

Era berean, "Huna, niagon hil minetan" (XI, 28) adierazten dio Beltxaranari.

Heriotzaren erantzukizuna maiteari egostean ere, bat datoz bi idazleok irudikatutako maiteminduak. Etxeparek itxuratutako maiteminduak dioenez,

ni zugatik hil banadi, kargu handi dukezu (XII, 12).

Ikuspegi bera erakusten du Oihenarten maiteminduak ere:

Beraz zirentzat xahu estakuruz / hel zazkio sober' aiduruz / zugatik hiltzen ari denari / eta hur' otoi urrikari; / ezpere hura hilen d' eta zu / harzaz-huts zirate ospazu, / gizon bat galdu dukezulakotz. / Zergatik? Maite zintielakotz (V, 55-62).

Zerbait eur' ontarzuneti / bihotz hunen pitzgarri / emadan sarri / begiratzeko hiltzeti; / ezpadidan, lur orotan / zeren hik hil banuken, / aipatu duken / hir' izen', izen gaixtotan (IX, 25-32).

Halaz gaizkitze hunetan / nun alabain' ezarri / dolu egingarri. / Huna, niagon hil minetan. Ezpanun hant' idokiten, zordun izan bezala, / hik hil nunala / dinat hil aitorr' utziten (XI, 25-32).

Batak eta besteak itxaropenik gabeko maitasunaz jardun zuten. Alderdi honetatik begiratura ez dago inolako berrikuntzarik Oihenarten neurtitzetan: topiko hutsa zen elkarrekikotasun printzipioan oinarritu gabeko maitasunaz aritzea, norabide bakarra erakusten duen maitasunaz aritzea, alegia. Diru-

dienez, bi norabideetako den maitasuna ez da poesiarako egiten, tristura uxatzen duelako edo. Mende batzuk geroago, Txillardegik, adibidez, goibeltasunarekin uztartzen du poesia. *Leturiaren egunkari ezkutuko* (1957) Joxeba Leturiaren egunkaria aurkitu zuen ohar biltzaileak dioenez,

Noiz idazten dira-ta egunkariak? Noiz idatzi duzu zeuk, irakurle? Beltzurak zure arima goibeltasunez bete zuenean.

Iluna da poesia. Alaia ez da poesigarri⁴.

Unean uneko maitearengandik ezezkoa jasotzea ez eze, beste ezaugarri-rik ere partekatzen dute, Etxepareren eta Oihenarten poesietako maitaleek: biek harreman ezkutua eskatzen dizkiete beren maiteei. Honela galdegiten dio Oihenartek irudikatutako maitaleak “Argia daritzanari”:

Beraz higanik / egin jadanik / noiz nakidina dakidan / jin, eta nura / gordelekura, eta hi han bat akidan (III, 43-48).

nonbait egizu Jainkoaren partez / ikus zitzadan zenbait artez: / bana zureki nahi nikezu / elizan nehor zuhaur bezi / et’ ikuslerik ageri elizan / lekutara zindiaurizan (V, 13-18).

Etxeparek mamitutako maitaleak ere, harreman ezkutua eskatzen ditu:

Mirail bat nik ahal banu hala luien donoa,
neure gogo nerakutson sekretuki han barna,
han berian nik nakusen harena ere nigana (V, 5-7).

Sekretuki behar dizit harekila minzatu (VII, 11).

Biok behin sekretuki nonbait minza gitian (VII, 18).

sekretuki minza giten biok, othoi, maitia (IX, 48).

Nihaur sekretuki nator zugana (X, 40).

Zuhaur nahi bazirade, ni segretu nukezu,
gure arteko amoria ehork etziakikezu;
sekretuki mintzatzeko, othoi, bide idazu (XII, 17-19).

Orobat, bi maiteminduek sufrimenduaren ordaina eskatzen dute.

Bai Etxeparek aurkeztutako maiteminduak, bai Oihenartek aurkeztutakoak, maitea gurtu baino gehiago desiraren objektu bihurtzen dute: sufrimendua eragiten dion maitea irrikaz bilatzen duen maitemindua itxuratzen dute.

Ordainaren eske dabil Oihenartek irudikatutako maitemindua:

Et’ uztazu / gutiziazu / nizan horri berere / amerstera, / pot-gitera / dudan zuri botere (II, 97-102).

⁴ TXILLARDEGI (1983): *Leturiaren egunkari ezkutua*, Elkar, Donostia, 74. or.

Gero azkenik / beharrenik / emadazu dudana, / Margarita, / jin-konjita / gauan behin zugana (II, 103-108).

Kausit ahal baneza / nonbait berhez-berheza / hunl' ene penatzea / baka bide baileza (X, 57-60).

Baita Etxeparerena ere:

Honestea berzerena erhogoa handi da,
plazer baten ukhenen du anhitz malenkonia:
begiez ikus, ezin minza; han dakusat nekia;
beriareki datzani enetako aizia (IV, 11-14).

ene gaizki penatzeko segur sorthu zinaden;
penak oro hon lirate, zu bazina orhitzen (VI, 13-14).

Hark nigana eztaduka unsa leialdaterik,
ni ere elikaturen niz orai hura gaberik (VII, 29-30).

pot bat, othoi, egidazu; etzaitzula herabe;
nik zugatik dudan penek hura merexi dute (VIII, 3-4).

Ene maite maitena, egidazu zuzena;
joan duzuna ekhardazu, ezpa eman ordaina (IX, 3-4).

nik zugatik dudan pena hanbat ere handi da,
zuzaz beraz ezpanadi orai bertan konsola,
ene arima jalgiren da falta gabe kanpora (XII, 26-28).

Hortaz, gizakiaren grinena egiazko ezagueran kokatuz ondutako koplak dira bi egileenak.

Ezaugarri komun nabarmenak dituzte bi egileek moldatutako maiteminduek: andreetan ederrenaz maitemintzeaz gain, andre honen maitasuna eskuragaitza izateak eragindako sufrimendu amai ezinak jasaten dituzte eta sufrimendu hauen ordain legez eskariak egiten andre honi, ezkutukoak izango diren harremanak proposatuz. Bada ezaugarri komunik maitemindu horien maiteengan ere: ederrak dira. Etxepare eta Oihenarten maitasunezko poesien artean dagoen aldea ez da gai-mailakoa, gaiaren kodeketa-mailakoa baino.

Erljioari dagokionez, bat etortzea oraindik harago doa. Batetik, kristau doktrinako puntu berberaz aritzeraino heltzen dira; bestetik, kristau doktrinak irakatsitakoa da neurtitzetara daramatena. Kristau doktrinako ikasgai bera hautatu izanaren lekuko da, biak Jaungoikoaren Hamar Aginduei buruzko doktrinaz baliatu izana neurtitzak egiteko. Alabaina, bada antzekotasun sagonagorik bi idazlearen deboleziaren poesietan: biek erlijioak irakasten duena daramate neurtitzetara eta ez erlijioa bizipen moduan. Hots, erlijioaren gaia ez dute lantzen gizabanakoaren esperientzia moduan, "ni" baten esperientzia moduan, kristau doktrinak irakatsitakoa jakinaraztera mugatzen baitira. Honenbestez, subjektibitate baten iragazitik iragazi gabeak izateak uztartzen

ditu bataren eta bestearen koplak erlijiosoak.

Maitasunari buruzko kopletarik deboziozkoetara igarotzean desagertu egiten da lehen pertsona gramatikaren erabilera Oihenarten idazlanean. Lehen hamazazpi poemak “ni” baten barne hustuketa bezala planteatu ostean, “ni”a ezabatu egiten du hurrengo bost poemetan. Maitasun-poemetatik erlijiozko poemetarako jauzian “ni”aren adierazpenaren lekua bigarren eta hirugarren pertsona gramatikalek hartzen dute. Maila horretaraino iristen da maitasunezko eta erlijiozko neurtitzen artean Oihenartek ezartzen duen etena. Etxepare bera, ezta “Doktrina Kristiana”n bertan ere, iristen da “ni”a erabat deuseztera. Nahiz eta koplak erlijiosoetara ez eraman subjektibitate baten esperientzia erlijiozkoa, une batzuetan lehen pertsona gramatikaren erabilerari eutsi zion neurtitzez emandako kristau doktrinako irakaspenen aurrean, norbere jarrera edo, oro har gizakiarena, erakusteko edo epaitzeko.

2. HAIN URRUN

Biek baztertzen dute subjektibitate baten bizipen erlijiosoaren berri ematea, gaira hurbiltzeko moduan bertan bat eginaz. Erlijiozko koplak planteatzeko moduan bat egiten duten arren testuan, paratestuan koplak horiei aitortzen dien mailak elkarrengandik bereizten ditu. Paratestuak eman dezake argibiderik bakoitzak deboziozko koplak aurrean agertzen duen jarrera desberdina dela baiezteko; izan ere, aldea dago batak eta besteak aldarrikatutako atxikimenduan: ez zituzten bere egin neurri berdinean.

Linguae Vasconum Primitiae izenburua ipini zion Etxeparek bere idazlanari: euskaldunen hizkuntzaren hasikinak jartzera zetorren. Lehen idazlea izatea azpimarratu zuen tituluan, libururaturako edukiei inolako erreferentziarik egin gabe. Lehenbiziko aldiz euskara idatziz eman izana nabarmentzera dator, ez horrela, jauzia egiteko eskaintzen duena zehaztera. Izenburutik hitzaurrea igaro behar da edukiei buruzko aipamenen batekin topo egiteko. Bernard Leheteri zuzentzen dion hitzaurrean aurreratzen du zertxobait:

eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraitzeko materia (79 or.).

Besteak beste, “zerbait doktrina” ematera doala iragartzen du. Beraz, Etxeparek agindutakoa betetzen du: doktrina da aurkezten duena eta ez subjektibitate baten bizipen erlijiosorik.

Beste era bateko seinaleak igortzen ditu Oihenarten idazlan poetikoaren paratestuak. *O.ten gaztaroa neurthitzetan* izenburupean argitaratu zuen idaz-

lana. Izenburuan adierazitakoa hitzaurrean dioenarekin eta berez egin zuenarekin erkatzen bada, honakoa gelditzen da agerian: izenburu horren azpian ezagutzera eman zuen liburuxkaren zati bat baino ez zuela gogoan hartu idazpurura eramateko.

Hitzaurre horretan jakinarazten duenez, “erregela horien betetzea ez dela gure hizkuntzan zenbaitek uste izan duten bezain zaila” erakusteko, “gaztaroan itzuri zitzaidan neurtitz multzo txipia” (302. or.) helarazteko asmoa du. Bere xedea eskuratzeko argitaratzera doan “gaztaroan itzuri zitzaidan neurtitz multzo txipia” eta ez besterik iragartzen du izenburuak: *O.ten gaztaroa neurthitzetan*. Izenburuari begira ez dirudi beste “neurtitz multzorik” liburutatu duenik. Jakina, *O.ten gaztaroa neurthitzetan* liburuan egon badago beste neurtitz multzorik, deboziozkoak, hain juxtu. Hauek ere iragartzen ditu hitzaurrean -“Azkenean erlijiozko neurtitz batzuk ezarrarazi ditut, olerkaritzarako nik baino grina eta antze gehiago dutenak hobeak eta gehiago egitera akuilatzeke” (302. or.)-, baina, aurkezten dituen moduan aurkeztuta, ez dirudi gaztaroakoak direnik.

Bi neurtitz multzo aurkituko dituela aurreratzen dio hitzaurrean irakurleari, multzo bat gazte denboran itzuri zaizkionek osatzen dute; bestea, azkenean datozen erlijiozkoek. Izenburuak, ordea, multzo horietako bakar bat iragartzen du: gaztetan itzuritakoak. Hitzaurrean ez balitu berezi batzuk eta besteak, guztiak izan zitezkeen gazte denborakoak, erlijiozko neurtitzen ontzea ez dagoelako adin jakin bati edo bizitzako aro bati atxikirik. Halere, bi neurtitz multzoak bereiztea erabakitzen du eta multzo bakoitza helburu jakin batez hornitzea. Hitzaurrean emandako azalpenekin, azken batean, ondu dituen deboziozko neurtitz horiekiko lotura gutxienera ekartzea bilatzen du: lehenik eta behin, izenburuak ez ditu biltzen, bigarrenik, besteri eredia erakusteko bakarrik idatzi ditu.

Honela bada, gazte denborakoak erregelak betetzea hain zaila ez dela “garbi ager dadin” argitaratzen ditu eta erlijiozkoak, berriz, beste batzuei eredia erakusteko. Gazte denborakoak, maitasuna gaitzat dutenak jotzen ditu berari ateratako bezala, berari jalgitako bezala. Aitzitik, erlijiozkoak, besteen jardun poetikoa bultzatzeko asmoarekin erantsi dituela aitortzen du. Batzuk berari itzuri zaizkio, besteak, maisu gisa mamitu ditu “ikasleak” sustatzeko. Bestela esanda, maitasunezkoetan egile moduan aurkezten den bitartean, deboziozkoetan, maisu moduan soil-soilik: maisu legez ondu ditu, irakasteko bakar-bakarrik.

Egile eta maisu da maitasunaz diharduten neurtitzetan, maisu hutsa erlijiozkoetan. Hitzaurrean argitzen duenez, gazte denboran bere olgeta bakarrik bilatuz ondu zituen neurtitzak, orain, zahartzaroan, euskaraz neurtitz zuzenak paratzea hain zaila ez dela erakusteko argitaratzen ditu. Hau da, olgeta

bilatuz mamitu zituen neurtitzak, maisu legez argitaratzen ditu. Maisutzarekin justifikatzen du argitalpena. Deboziozkoak, berriz, “ikasleak” bilatzeko soil-soilik moldatu ditu: eredu agertzea dute jomuga.

Oihenartek ez zuen aurkeztu bere burua erlijiozko koplaren egiletzat. Erantzukizun horretatik aldentzea erabaki zuen hitzaurrean. Ez da beste horrenbeste gertatzen Etxepareekin: hitzaurrean bertan bereganatzen du egiletasuna.

Beraz, *O.ten gaztaroa neurthitzetan* liburuxka Oihenartek maisu legez argitaratu zuen, baina Oihenart idazleak berezi egin zuen multzo bakoitzaren sorkuntza-prozesua: maitasunezkoak bakarrik dira bere olgeta bilatuz paratutakoak; hauei erlijiozko neurtitzak gehitu dizkie eredu gisa balio dezaten.

Egileak paratestuan duen ahotsa bere idazlan poetikoa bi partetan banatzeko darabil. Hala, maitasunezko neurtitzen egile moduan aurkeztu ostean, erlijiozkoetan maisu soila dela gaineratzen du. Paratestuan egindako banaketa honek badu islarik testuan: maitasunezko neurtitzetan subjektu baten sentimenduen jarioari bide ematen dion bitartean, deboziozko neurtitzetan subjektuaren sentimenduen adierazpena ezabatzen du eta, ondorioz, bizipen erlijioso baten aitortpena desagerturik, doktrinaren irakaspen soila gelditzen da: idazlearen etorriaren emaitza izatea ukatu eta, maisuaren irakatsi izatera mugatzen ditu. Maitasunezko kopleetatik erlijiozkoetara igarotzean, adierazpen lirikotik adierazpen didaktikorako jauzia burutzen du. Jauzi horretan objektua bakarrik geratzen da, subjektuak objektuarekin izan dezakeen harremanaren berri ematea deuseztatu egiten delako.

2.1. Kode-aldaketa

Esan bezala, paratestuan jarrera desberdina erakusten dute deboziozko koplaren aurrean Etxeparek eta Oihenartek. Etxeparek bere egiten ditu koplaren erlijiosoak Oihenartek ez bezala. Paratestuan atzematen diren aldeak jarraipena dute testuan. Testuan, kontrakoa den eran uztartu zituzten deboziozko koplaren hauek eta maitasuna jorratzen zutenak.

Oihenartek bi sorkuntza-prozesuak hitzaurrean berezi eta gero, prozesu hauetako bakoitza gogoan hartuko du liburua egituratzeko orduan: musak ukatuz itxiko du maitasuna gaitzat izan duen saila eta erlijiozko sailera igaroko da. Bi ondu aldi aitortu ostean, bi partetan banatuko du liburua eta, ez edonola egindako partiketa baten bidez, gainera: bi sorkuntza-prozesuen emaitza liburutzean, bitasun horri koherentzia ematea ez zuen alde batera utzi.

Ez zen mugatu erlijiozkoak maitasunezkoen segidan jartzera. Bi barruti autonomo osatuz aurkezten baditu ere, batetik besterako jauzia argi markatu

zuen. XVII. poeman bere emazte Joana Herioak hartu izanaren erantzukizuna leporatzen die musei, laguntzarik eman ez izana heriotzaren atzaparretatik askatzeko, hain zuzen ere. Arrazoi horregatik lehen aldian musen zerbitzari izan den poetak, betiko uzten du zeregin hori. Gisa honetan, mundu profano-ko etorriari bidea itxi ondoren heltzen die erlijiozko neurtitzei. Hala, hitzazurrean bi partetan banatu bere jardun poetikoa eta, parte horietako bat ixteko eginkizuna eman zion XVII. poemari: musen zerbitzari izatea ukatu eta gero igaro daiteke Jainkozko neurtitzetara.

2.1.1. *Erlijioa eta maitasuna barruti autonomoak*

Oihenartek berak Etxepareren idazlanaz dioenez, “Il est diuisé en deux parties, La premiere contient quelques fragments de La doctrine Chrestiene, Et lautre (oultre les regrets de son Emprisonement) de Uers d’amour”⁵. Bistan da, ez dituela aipatzen Etxeparek euskararen ohoretan idatzitakoak eta liburua bi zatitan banatuta atzematen duela: koplak erlijiosoak eta maitasunari eskainitakoak (bere kartzelaldiaz diharduenaz gain). Maitasuna eta erlijioa dute gaitzat, halaber, Oihenartek Parisen 1657an argitaratu zituen poesiek. Alabaina, Etxeparek lehenbizi erlijioa gaitzat zutenak eman bazituen eta jarraian maitasun mundutarrak zihardutenak, juxtu aldrebes jokatu zuen Oihenartek. Kontrako ordena erabiliz hasten diren aldeak, jorratutako bi gaiak uztartzeko modura hedatzen dira. Etxeparerengan lotura dago bi gaien artean, Oihenartengan, ostera, etena. Erlijiozko eta maitasunezko koplak kateatu egiten ditu Etxeparek; bi gaien artean etena ezartzen du Oihenartek.

Etxeparek *Linguae Vasconum Primitia*eko lehen koplak, “Doktrina Kristiana”, Ama Birjina Mariari salbazioa eskuratzeko laguntza eskatuz bukatu eta, bigarrenean, “Amorosen gaztiguia”n pertsona hori, Maria, du erdigune. Horrela, “Doktrina Kristiana” koplako azken atalak, “Orazionea” izenburupean aurkezten duenak, lehen koplak bigarrenerako “iraganbidea” egiten du: Ama Birjina gaitzat erabiltzeak uztartzen ditu. “Andre” ezaugarri komunak iradoki izan balio bezala, zeruko Andrearengandik lurreko andrearengana igaroz hirugarren koplak, hezur-haragizko emakumea laudatzen du. Iraganbidez iraganbide doa Etxepare, aurreko koplak osagairen bat hartu eta hurrengoan jarraipena emanaz. Laugarrenetik hamabigarrenera doazen koplek maitasun mundutarrean azaleratzen diren egoera desberdinez dihardute. IV.etik XII. arterainoko kopletan erakutsitako etsenpluek frogatuko dute, batetik, amorosen arteko maitasuna ez dela Zeruko Amarena bezalakoa; bes-

⁵ LAFITTE, Pierre (Ed.) (1967): *L’art poétique basque d’Arnaud d’Oyhénart (1665)*, Edition Gure Herria 37. or.

tetik, gizonak direla andrea bekatu bidean jartzen dutenak. Bigarren koplan, “Amorosen gaztiguia”n, eta hirugarrenean, “Emazten fabore”n, ezarri dituen tesiak frogatzeko eginkizuna egotzi dakioke kopla-sail honi⁶. Honako bi tesi hauek frogatzeko eginkizuna, hain zuzen ere:

amoretan plazer baten mila dira dolore (II, 10).
gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik (III, 2).

Azken batez, maitasun mundutarrak ari diren koplek, euskalduna maitasun zerutiarrera, Ama Birjinaren maitasun bete-betera erakartzea dute helburu.

Honela bada, lotu egiten ditu Etxeparek kopla erlijiosoak eta maitasun mundutarrak dihardutenak. Harremanaren gain eraiki ditu batzuk eta besteak. Oihenartengan, ordea, etena dago maitasunaz eta erlijioaz diharduten koplen artean. XVII. poemak ezartzen du eten hori. Gaztaroan itzuri zitzaion neurritz multzoa lehen hamasei poemek osatzen dute. XVII.a erlijiozkoa ez izan arren, ez du jotzen gaztarokotzat:

Bertanko ilhots haur gaztaroan egina ez izanagati, eritzi dut etzaokeela hemen gaizki (434. or.).

Gaztaroan egina ez den poema hori “Ezkontidearen hil-kexua museen kontra” da. Honela dio lehen ahapaldian:

ANDREAK, luzez zerbitzatu
zaituztet, eta nik hospatu
dut herri hautan zuen izena,
lehen guti ezagutu zena;
nik zuen azturak et’atunak,
gu baitan orano ez enzunak,
argiratu’tut ilhunbeti,
et’aterarik herratzeti
guretu, et’eman hek Euskara
kobla honzalen eskuetara (XVII, 1-10).

Andreen zerbitzupuan moldatu ditu kopla honen aurretik eman dituen gaztarokoak. Laudatu, ezagutzera eman eta etorkizuneko euskal poeten eskura jarri ditu Andre horiek. Hala ere, esker txarrekoak izan dira musok, ez baitute askatu heriotzaren atzaparretatik bere emazte Joana. Horra hor, salaketa, lehen aldi musokin izandako harremana betiko hausteko arrazoia:

⁶ TOLEDO, Ana M. (2003): “Maitasun mundutiarra Etxeparerengan: ‘baskoen gaztiguia’”, *Euskal Gramatika eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. mendean*, Euskaltzaindia, Bilbo, 237-256. orr.

beraz nizaz hain axol guti / duzuen gero, zuen zerbitzuti / naiz oraidanik
ment'orotan / jalkiten ez itzultzekotan (XVII, 17-20).

Musen zerbitzari izatea behin eta betiko utzi duenez, aldi hau itxi eta “Jainkoazko” neurtitzak egiteari hel diezaioke. Ordurako onduak dituelarik musen zerbitzupuan idatzitako hamasei koplak, bi parteak bereizteko zeregina eskuratzen du XVII. poema honek. Etena ezartzeko darabilen baliabideak, -neurtitz profanoak mamitzeko behar den etorriaren jatorria musengan jarri eta deboziozko neurtitzak eskatzen duten etorria jatorri honetatik berezi- lortuko du oihartzunik euskal letretan: Bernard Gasteluzarrek 1686an argitaratu zuen *Eguiac Catholicac*-en bigarren parteari hasiera emateko erabili zuen harako “Urrun adi, Parnaseko / Musa zahar profanoa, / Eta zato, zeruko / Musa berri dibinoa”⁷ deian, kasu.

Oihenartek berezi egiten ditu bi zatiak: musek eragindako etorria jarraituz paratu ditu maitasunaz ari diren poemak. Etorri horren emana ixten du XVII. poeman, XVIII.ean deboziozko poesiak ontzeari ekin aurretik. Horiek horrela, sekularizazio-prozesutik iragazitako mundu-ikuskerara erakusten du: giza bizitzak barruti autonomia eratzen du. Elkarrengandik bereizten dituen bi barruti aurkezten ditu: maitasun mundutarra, erlijioa. Mundu profano eta sakratuaren artean iraganbiderik gabeko mugarrira ezartzen du.

Ez da beste horrenbeste gertatzen Etxeparerengan, erlijiozkoak eta maitasunari buruzkoak elkarrekin harremanetan moldatzen dituelako: maitasun mundutarrean bizi izaten diren atsekabeak euskalduna maitasun zerutiarrera, Andre Mariaren maitasunera, irabazteko bide ditu. Nahiz eta xehetasunez jarduteko mundu sakratuko maitasuna gabe, profanokoa hautatu zuen, bigarren hau lehenbizikora erakartzeko bitarteko moduan erabili zuen: zeharkatu daitekeen muga jarri zuen bataren eta bestearen artean. Laburbilduz, Etxepareren idazlanari darion ikuskeran ez dago autonomiarik bi barrutien artean; izan ere, mundu profanoko maitasunari buruz azaltzen duena, mundu sakratuko maitasuna hobesteko baliabide du. Honenbestez, sekularizazio-prozesutik iragaztera heldu ez den mundu-ikuskerara agertzen du.

Egitura handienetik txikienera atzematen dira bi idazlanon arteko aldeak: koplaren arteko barne-taxuketatik, koplaren taxuketara, ahapaldiarenera, neurtitzarenera...

⁷ AKESOLO, Lino (Ed.) (1983): *Bernard Gasteluçar. Eguiac Catholicac salvamendu eternalaren eguitico necesario direnac*, Euskaltzaindia, Bilbao, 63. or.

2.1.2. *Erregelen arabera / ignorantziaren arabera*

Bi sorkarien paratestuek kode-aldaketaren berri ematen jarraitzen dute. Honela dio Etxeparek Bernard Leheteri egin eskaintzan:

igorten darauritzut heuskarazko koplak batzu ene ignorantziaren araura eginak. Zeren, jauna, haiek ikhusirik eta korregiturik plazer duzun bezala, irudi bazautzu, inprimi erazi ditzazun (79. or.).

Zinez, liburua argitaratzera doakion babeslearen aurrean, Leheteren aurrean, apaltasunez azaldu beharrean dago Etxepare. Ez du halako beharrik, berriz, liburuaren egile ez eze, liburuaren argitaratzaile ere baden Oihenartek.

Haatik, Etxepare liburua argitaratzera doakion babeslearen aurrean apaltasunez aurkeztu beharrean dagoela aitortuz ere, babeslea laudatzea eta norbera umil azaltzea eskaintzetan topikoa dela onartuz ere, “ene ignorantziaren araura eginak” horrekin, apaltasunaz gain besterik ere adieraz dezake. Etxepare, noski, ez da ezjakina, gizon ikasia baita, zalantzarik gabe. Koplak dira bere “ignorantziaren araura eginak”. Bestela esanda, ez duela eredurik jarraitu, ez duela bide-erakuslerik izan, ez duela maisurik izan koplagingintzari heltzeko orduan adierazten ari da Etxepare.

Berriro kontrako norabidean kokatzen da Oihenart. Neurtitzei egindako hitzaurrean iragartzen duenez, neurtitz zuzenak paratzeak eskatzen dituen erregelak euskaraz betetzea hain zaila ez dela erakusteak eskatu dio argitara ematea.

Beraz, Oihenartentzat, Etxeparearentzat ez bezala, erregela batzuk jarraitu behar dira neurtitzak paratzerakoan. Teknika batzuen aplikazio bezala dakusa poesia, erregela batzuen betetze moduan. Arau batzuk gobernatzen dute praxi poetikoa.

Jakina denez, Oihenartek bere neurtitzak argitara eman eta zortzi urtera, *L'art Poétique basque, Indiquee dans Une lettre Escrite a Un cure du Pays de Labourt au mois de mai 1665* idatzi zuen. Gutunaren lehen lerroetan honakoa irakur daiteke:

*Vous me demandés de qu'elle methode Je me sers en composant de Uers basques. Je Uos Respons que, lors que Je m'occupois a cet Exercisse (car il y a long temps que Je ne m'en mesle plus) Je m'accommodois a l'art des Poetes Italiens et Espagnols Et encore plus a Celle des latins, qui ont Escrit en Rimes que non pas a Celle des françois*⁸.

⁸ LAFITTE, Pierre (Ed.) (1967): *L'art poétique basque d'Arnaud d'Oyhénart (1665)*, 15. or.

Maisu eta ikasle izan zen aldi berean Oihenart. Batetik, euskarazko poesia erregela zehatz batzuen arabera moldatzeko eragozpenik ez dagoela irakatsi nahi dio euskal poesia egileari. Bestetik, irakaspen hori emateko ondu dituen neurtitzak imitazioan oinarrituz gauzatu ditu: neurtitzak mamitzeko erabili duen bidea maisutzat jo dituen poeten eruedetan ikasi du. Azken finean, maisuengandik ikasi duena euskarara egokitu eta etorkizuneko euskal poeten eskura jarri nahi du, neurtitz zuzenak egin ditzaten aurrerantzean.

Bere “ignoranziaren araura” koplak paratu zituen Etxepareren aurrean, beste ikuspegi bat dakar Oihenartek: ikasi egin daiteke neurtitzak egiten. Poetaren etorri soilaren baitan dagoen egitekoa gabe, arau batzuk ikasi eta arau horiek agindutakoa jarraitzean datza neurtitzak ontzeko zeregina. Honela bada, poetaren langintza beste edozein ofizioetako bezalakoa da Oihenartentzat. Zeinahi lanbide ikasten den moduan ikasten da poeta izaten: arau eta teknika batzuk norberaganatzean eta arau eta teknika horietan trebatzen joatean dago gakoa. Lanbide bat gehiago da poetarena, bere teknika berezia duen lanbidea, noski, baina lanbidea den aldetik, saiaturaz ikasten dena. Horrela ulertzen du poesia Oihenartek. Besterik dira, arau eta erregela horien arabera hizkuntza batean lehenbiziko aldiz jarduteak erantsi ditzakeen eragozpenak.

Hala, “ignoranziaren araura” ondutako neurtitzetatik erregelen arabera ondutako neurtitzetara igarotzen da euskal poesia, eredurik jarraitzen ez duten kopletatik, eredutan oinarritzen diren koplelara, maisuen irakatsirik gabe jorratutakoetatik, maisuen irakatsia oinarri dutenetara, etorkizuneko koplak-egileen jarduna arautzeko asmorik ez duten kopletatik, etorkizuneko euskal poeten jarduna arautzea jomuga duten koplelara.

Bi egileok bertsoa egiteko ikuspegi desberdinetatik aritu izanaren zantzu da, halaber, Etxeparek bere liburuaren babesle Bernard Leheteri ematen dion lizentzia: igortzen dizkion koplak “korregitzekoa”. Bistakoa da babeslea laudatzen eta bere aurrean apaltasuna azaltzen jarraitzeko bitartekoa duela. Era berean, bistakoa da Oihenartek ez daukala otzantasuna adieraziz egindako eskaintzaren baten premiarik, liburuaren egilea izateaz gainera, liburuaren babeslea ere badelako. Baina, babesleren bat lausengatzeko premia izan balu, ez zukeen izango Etxeparek egindako aukera berberetara jotzerik. Izan ere, “ignoranziaren araura” mamitutako koplek “onar dezakete” “ikusi eta korregitzea”, ez horrela, erregelak jarraituz moldatutakoek. Bere jarduera poetikoa erregelekiko menpekotasunik gabe atzematen duenak bakarrik erabil dezake horrelako formula bat. Etxeparek erregelak jarraitu izan balitu beste formula batzuetan bilatu beharko zukeen apaltasunaren adierazpena, darabilena baztertuz, erregelek gobernatutako poesia ez dagoelako “korregitzerik”. Arau bazuen arabera onduta daude, teknika batzuen arabera paratuta: arau horiek, teknika horiek bete dituen ala ez epaitzea da zuzentzaileak eduki dezakeen

lantegi bakarra. Arau batzuk gobernatzen duten poesia ezin da “korregitu” ez bada arau horien arabera: gainontzekoa errakuntzak zuzentzeko lanera mugatzen da.

Neurtitzak egitea Oihenartentzat arau eta imitazio kontua da, XVI. eta XVII. mendetako poetikek aldarrikatzen zuten bidetik. Poetika hauek poesia egiteko tekniken berri ematen zuten xehe-xehe, batik bat neurtitzaren alderdi foniko-erritmikoaz arduratuz. Arreta gunee bera du Oihenarten poetikak ere: silabez, azentuez, errimez... dihardu. Neurtitzaren alderdi foniko-erritmikoan bete beharreko arauak gain, zuzen edo zeharka, beste arauen batzuk ere aipatzen ditu, poesiak imitazioan oinarritu behar duela baieztatu duenean edo behar bezalakotasuna, decorum-a zaindu beharra iradokitzen duenean.

Linguae Vasconum Primitiaen ez zen betetzen arau hauetako bakar bat ere: baliatutako bertsoleerroaren neurria ez da agertzen poeta frantses, italiar edo espainolen poesietan; lizentzia metrikoez egindako erabilera ez da egokia; zesarak edo etenak ez dira erregularrak; errimak ez dira zuzenak... Hitz batean, koplak ontzeko imitazioan oinarritu ez izana eta bertsoaren alderdi foniko-erritmikoan baliabide egokietara jo ez izana leporatzen dio Oihenartek Etxepareri: bertsoak egiteko jarraitu duen bidea ez da zuzena izan.

Oihenart legelariak bere lanbidean duen helburua arau eta legeak aplikaraztea da eta Oihenart neurtitz egileak arau eta teknika poetiko zehatzetan du konfidantza: hala erakusten du osatu zuen lan prezeptistak eta praxi poetikoak.

Dena den, Oihenartek eta Etxeparek ondutako koplak arteko erkaketak agerian uzten dituen aldeak ez dira amaitzen ahapaldi eta bertso-lerro desberdinez baliatu izanean edo lizentzia metrikoez (sinalefaz eta elisioaz) egindako erabilera desberdinean. Ezta zesuren erregularatasun edo irregularatasunean, ezta errima aberatsa jomuga izatean edo asonantzia soila nahikotzat jotzean... Ez ziren elkarrengandik urrundu neurtitzen alderdi foniko-erritmikoan bakarrik.

2.1.3. *Decorum-a*

Oihenartek bere lehen aldiko euskal poesian atzeman zituen akatsak ez ziren agortzen neurtitzaren alderdi foniko-erritmikoa gaizki landu izanean. Alderdi foniko-erritmikoan bete beharreko arauak baino gehiago urratu zituzten bere aurreko euskal poetak: 1665eko data daraman arte poetikoan iraganeko euskal poesia berrikusten duenean, beste ajeren bat ere salatzen du. Esaterako, Etxepareren maitasunezko koplak aztergai zituela honakoa erantsi zuen: “de Uers d’amour assés mal seans aUn Ecclesiastique, Et sur tout aUn curé ayant charge dames”⁹.

⁹ LAFITTE, Pierre (Ed.): *L’art poétique basque d’Arnaud d’Oyhénart (1665)*, 37. or.

Litekeena da Oihenartek ego enpirikoa ego literariotik ez bereiztea eta, horregatik, Etxepareren maitasunezko kopleto "ni"ak maitasun mundutarrean bizi izandako gorabeherak aitorpentzat hartzea. Ez dago jakiterik ego enpirikoa ego literarioarekin bateratzearen ondorio izan zen aipatu epaia. Dena dela, "assés mal seans" dutenak bezala jotzeko, ez zuen nahitaezko ego enpirikoa eta literarioa parekatzea. Seguru aski, eliz gizon batek, arimazain den apaiz batek halako ego literarioa eraiki izana bera, besterik gabe, nahiko izan zezakeen behar ez bezalakotzat hartzeko, Etxeparek eraikitako ego literarioak maitasun mundutarrean egindako ibileren azalpenek arauen bat urratzen zutelako. Oihenartek ez zuen ego enpirikoa eta ego literarioa uztartu beharrik arte poetiko klasikoek eta hauen doktrinen jarraitzaile izan ziren XVI. eta XVII. mendeetako poetikek agintzen zuten arau bat bete ez izana egosteko: "decorum"aren erregela, hain zuzen ere.

"Decorum" a barnekoa nahiz kanpokoak izan daiteke. Kanpokoak idazlana publikoaren ohitura, sentsibilitate, gustuari... egokitzea galdegiten du eta, azken finean, baldintza honek errealitatea bere alderdirik zantarrenetan erakustea debekatzen du. Alegia, kanpo-decorum-ak zera eskatzen dio egileari, bere gizarteko ohitura eta arau moralak errespetatzea. Aipatutako eskakizunak gai nazkagarrien edo zantarren (hilketak, dueluak, etab.) erabilerari uko egitea eta bizitza sentimentalari buruzko azalpenetan askatasun eta ausardia gehiegiz agertzea ekiditea agintzen du. Labur esanda, publikoaren sentsibilitatea eraso dezaketen ekintzak, bereziki sexualitatearen, indarkeriaren eta heriotzaren alorrekoak irudikatzea saihestu behar du idazleak.

Neurtitzaren alderdi foniko-erritmikoetan egindako arau-urraketei kanpo-decoruma ez gordetzearena gehitzen die Etxeparek. Hots, Oihenarten aburuz, *Linguae Vasconum Primitia*eko III-XII kopleten arteko segidan itxuratutako "ni"ak bizitza sentimentalaren azalpen gordinegiak emango lituzke: esplizituegia, ausartegia, bortitzegia, grinatsuegia, primarioegia, zakarregia, baldarregia, bere senari menperatuegi dagoen "ni" a litzateke Etxeparek koplak horietan mamitutakoa. Horrela uler daiteke behintzat Oihenartek arte poetikoan adierazitako epaia Etxeparek ondutako maitasunezko koplak gustu txarrekoetat jotzen dituenean.

Oihenart prezeptistarentzat desegokiak baziren Etxepareren maitasunezko koplak, Oihenart poetari zegokion maitasunezko koplak egokiak ontzea. Mamitu zituen koplak erakusten dute nola desegokitzat zuen hartatik urrunduz.

Honela, harreman sexuala agerian jartzera heltzen bada Etxepare, ez dago horrelako ausardiarik Oihenarten neurtitzetan. Batak eta besteak eraikitako maiteminduen irudietan ere aurki daiteke alderik: Oihenartek irudikatutakoa finagoa da, dotoreagoa.

Bada bat etortzerik eta elkarrengandik urruntzerik maitasunezko poesietan mamitzen duten maiteminduan. Bat datoz, adibidez, haragiaren xarmari uko ez egitean, ez horrela, haragiaren erakarmena kudeatzeko moduan. Bi egileek itxuratutako maiteminduek ez dute etsitzen penetan urtuaz eta maite duten dama desiratzen dute, baina Oihenartek itxuratutakoak ez du bortxatzen, ezta bortxaketa-mehatxurik egin ere, Etxeparerenak egiten duen bezala. Elkarrengandik aldentzen dituen moduetara biltzen da. Batak, behartu egiten du dama,

Bizi nizan egunetan, bada, etzitut utziren;
nik zer orai nahi baitut, heben duzu eginen (VIII, 17-18),

besteak, baimena eskatzen du:

Et'uztazu / gutiziazu / nizan horri berere / amerstera, / pot-gitera / dudan zuri botere (II, 97-102).

Etxeparengan bortxatua izan den damaren kexua entzun daiteke:

Orai egin duzu nahi duzuna, / eman darautazu ahalgeizuna, / maradikatzen dut neure fortuna, / zeren jin bainendin egun zugana (X, 67-70).

Maitemindu bortxatzaile honen ondoan, fintasun handiagoarekin jakinarazten ditu eskaerak Oihenartek irudikatutako maiteminduak:

Gero azkenik / beharrenik / emadazu dudana, / Margarita, / jin-konjita / gauan behin zugana (II, 103-108).

Nola kanpo-decoruma hala barne-decoruma gorde nahi du Oihenartek. Hau da, garaiko gizarteak hobesten dituen ohitura eta arau moralak gogoan hartzeaz gainera, idazlanaren barne-harmonia, barne-koherentzia zaintzen du.

Etxeparek maitasunezko kopletan irudikatzen duen "ni"ak ez du bere burua zuzenean aurkezten: koplaren desberdinetan zehar esan eta eginikoen soil-soilik ematen dute bere nortasunaren berri. Antzera gertatzen da Oihenartek irudikatutakoarekin, nahiz eta honakoak, bere maila sozialaz aipu zehazgabe-
ren bat egiten duen. Margaritari eskainitako neurtitzetan dioenez,

Hanbat beti / gotorreti / egiten derautazu, / baninz bezain / zenbait betzain / edo ilhagin zarpazu (II, 25-30).

Maitemindua kexu da Margaritarengan atzematen duen jarrera harroaz. Kexuaren adierazpenarekin batera jokabide harro hori salatzean, bere ikuspegi klasista agerian uzten du: behizainaren edo ilaginaren gizarte-maila baino garaiaorik badu "ni" horrek, maila zehaztera iritsi ez arren.

Gizarte-maila da pertsonaiaren portaera eta hizkera baldintzatzen duen faktoreetako bat. Fintasunak markatzen du, ez behizaina, ez ilagina den "ni" honen portaera eta hizkera. Jadanik azaldu denez, Etxeparek irudikatutako

“ni”aren portaeran ez dago fintasunik, ezta hizkeran ere. Alderdi honetatik begiratuta tonu-batasuna gordetzen dute biek. Alegia, nolako portaera erakutsi, halako hizkeraz baliatu elkarrekikotasuna bi idazlanetako maiteminduek gordetzen dute. Portaera-modu bat dario Etxeparek mamitutako maiteminduari eta hizkera-modu bat du bereizgarri; bestelakoa da Oihenartek itxuratutako maiteminduaren portaera eta bestelakoa da, halaber, bere hizkera. Beraz, portaera desberdin horiek hizkeran islatzen dira: joskera-modu, hiztegi-modu eta figura erretorikoak eratzeko adierazpen-modu desberdinak darabiltzate.

Joskera-moduari dagokionez, mintzaira mintzatuko joskerari eutsiz, zangalatrau eta hiperbaton bortizetatik urrutiratzen da Etxepare. P. Altunak ondorioztatu zuenez, neurtitza adierazpide izanagatik, ez zen aldendu mintzaira mintzatuko hitzen ordenatik:

Esaldia bi lerrotan edo gehiagotan barna hala luzatzen denean, hitzen ordena egunoroko hizketan bezala, prosazkoan bezala, jariatzen da batere bortzarik gabe, hitz bakoitza dagokion lekutik atera gabe, hitz-katearen maila bakoitzak bere lekua gorderik. Hainbestearino da hori egia, non baldin erritmoa oso markatua ez badu, ez eta puntua oso aberatsa, hura entzuten duenak pentsa bailezake hitz lauzko testua entzuten ari dela¹⁰.

Altunak berak erantsi zuen joskera-moduak ere bereizi egiten zituela bi idazlanak:

Ez da hala gertatzen Oihenarten bertso honetan, adibidez: Beraz higanik / Egin iadanik / Noiz nakidina dakidan / Jin eta nura, / Gorde-lekhura, / Eta hi han bat akidan¹¹.

Honela bada, eguneroko hizketakoa den hitzen ordena jarraitzen duen Etxepareren aurrean, eguneroko hizketako hitzen ordenatik urruntzen da Oihenart: eguneroko mintzairaren ordenatik desbideratzen diren egitura linguistikoak aurkezten ditu.

Hiztegiari dagokionez, ezaguna da Oihenartek tradiziozko hitzak berreskuratzea eta neologismoak sortzera jo zuela¹². Zeinahi aukera egiten duela ere, Etxeparek baino hiztegi aberatsagoa erabiltzen du, honako zeregin honetan bederen: hitz berbera errepikatzea saihestu eta besteren batengatik ordez-

¹⁰ ALTUNA, Patxi: “Etxepareren 450. urteurrenaren hondakinak”, PEREZ, Elixabete; ZULAIKA, Esther (Ed.) (2002): *Haizeak ez eramango!*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 85. or.

¹¹ ALTUNA, Patxi: *Ibidem*, 85. or.

¹² Ik. MITXELENA, L. (1953): “Arnaut Oihenart”, *BAP*, 445-463. orr. Halaber, AZKARATE, M. (1994): “Oihenart'en lexiko-sorkuntza”, *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker-8, Euskaltzaindia, Bilbo, 49-77. orr.

katu. Ideia berbera adierazi behar duenean, aldaera desberdinetara jotzen saiatzen da. Etxeparek, aitzitik, ez dirudi garrantzirik eman zionik aldaera estilistikoen alderdia zaintzeari. Esaterako, harreman ezkutuak aipatzeko *sekretuki* hitzaz behin eta berriz baliatzen da Etxepare:

Mirail bat nik ahal banu hala luien donoa,
neure gogoa nerakutson sekretuki han barna,
han berian nik nakusen harena ere nigana (V, 5-7).

sekretuki minza giten biok, othoi, maitia (IX, 48).

Nihaur sekretuki nator zugana (X, 40).

Kopla desberdinetan ez ezik, kopla berdinean errepika dezake:

Sekretuki behar dizit harekila minzatu (VII, 11).

Biok behin sekretuki nonbait minza gitian (VII, 18).

Baita ahapaldi berdinean ere:

Zuhaur nahi bazirade, ni segretu nukezu,
gure arteko amoria ehork etziakikezu;
sekretuki mintzatzeko, othoi, bide idazu (XII, 17-19).

Baliabide gehiagotara jotzen du Oihenartek ideia hori berori adierazteko:

Haur hal'ezten / ardiresten / baitzituket batzutan / ez agerri, / ez enzuerra /
eztateien lekutan (II, 31-36).

Hirekil' aldiz / bederak' aldiz / bazter lekutan baturik / nonbait banago (III,
7-10).

Beraz higanik / egin jadanik / noiz nakidina dakidan / jin, eta nura / gorde-
lekura, / eta hi han bat akidan (III, 43-48).

nonbait egizu Jainkoaren partez / ikus zitzadan zenbait artez: / bana zureki
nahi nikezu / elizan nehor zuhaur bezi / et' ikuslerik ageri elizan / lekutara
zindiaurizan (V, 13-18).

Kausit ahal baneza / nonbait berhez-berheza / hunl' ene penatzea / baka bide
baileza (X, 57-60).

Aldaerak bilatzen ditu Oihenartek, ideia bera azaltzeko era desberdinak. Ez dirudi aldaeren bilaketak Etxepare arduratzen duenik: kopla desberdinetan bada ere, bertso-lerro bera errepikatzen hel daiteke:

ni errege balin baninz, erregina lizate (V, 14).

ni errege balin baninz, erregina zinate (VIII, 2).

Are gehiago. Atsotitza eta neurtitza argi eta garbi berezi zituen Oihenartek. 1657an Parisen argitaratu zuen idazlanaren lehen parteak atsotitzak jasotzen zituen, bigarrenak, gaztaroan itzuri zitzaizkion neurtitzak.

Atsotitzei egindako hitzaurrean bilketa-lana osatzeko izan dituen arrazoiez diharduela, besteak beste, honakoa dio:

Zeren solasetako hitzaldien apaingarri bezala eta zerbaiten sinetsarazteko arrazoibide gisa baliagarri izateaz gain, gure bizitzako jokabidea bideratzeko ere ainitz erakaspen baitute (55. or.).

“Solasetako hitzaldien apaingarri”tzat jo zituen atsotitzak, ez neurtitzetarako apaingarriztat eta ez zituen erabili bere neurtitzetan. Mugarria dago Oihenart pemiologoaren eta neurtitz egilearen artean. Etxeparek, berriz, esaerak ere eramaten ditu kopletara:

Orai porogatzen dizit dakitenen errana:
ehork utzi eztazala eskuietan duiena (VI, 19-20).

Pitxer ebilia hautsi diohazu (X, 43).

Haraitzinakorik duzu errana:
utzi dazanorrek eskuian duiena
nahi duenian eztukeiela (X, 63-65).

Unitate kodifikatuari tokia ireki dion Etxeparengandik urrutiraturaz doa unitate kodifikatuaren erabilerari bidea ixten dion Oihenart. Egindako hizkuntza egiturei, itxitako hizkuntza egiturei tartea ematea baztertuz, hizkuntza baliabide zabalagoak eta emankorragoak bilatzeari ekiten dio, adierazpena ñabarragoa izan dadin.

Ez dago originaltasun-izpirik, ez Oihenartek irudikatzen duen maiteminduan, ez maitemindu honek irudikatzen duen daman, ezta beren arteko maitasun-harremanean ere. Originala izateko asmorik ere ez zuen. Poetak, Jainkoak bezala, ezerezetik sortzen duela aldarrikatzen duena mugimendu erromantikoa da. Besterik da XVI. eta XVII. mendeetako poetiken ikuspegia eta bere garaiarekin bat egiten duen Oihenartena: Antzinate grekolatindarrak sortutako ereduak eta ondare hau bereganatu duten humanistek eskainitako ereduak imitatu. Horixe zen, bere orain aldi kokatuz, Oihenart prezeptistak euskal poesiarentzat proposatzen zuen bidea eta horixe izan zen Oihenart neurtitz egileak egin zuena. Beraz, dela Oihenartek irudikatutako maiteminduak eta honek maitasuna bizitzeko daukan erak (negar-intzirriak, eskariak...), dela maite duen damaren irudiak, indarrean zeuden arau batzuei erantzuten die. Azken batez, poesia egitea imitazioan eta arauak betetzean oinarritzen da.

Alabaina, Oihenartengan bada originaltasunik. Lehenik eta behin, bere buruari aitortzen diona: bertso zuzenak euskaraz paratzen lehena izatea. Argitu beharrik ere ez dago, bertso zuzenak mamitzen lehena izateak, zera esan nahi duela: ikuspegi berri batetik zereginari heldu zion lehenbizikoa izan zela. Ikuspegi berri horrek ereduaren imitazioa eta arau jakin batzuk betetzea zituen euskarri. Irizpide berri hauekin ondu zuen neurtitza Etxeparek ondu-

takotik aldentzen zen alderdi desberdinetan: neurri, lizentzia metrikoen erabilera, errima... Baita maiteminduaren irudi finagoa aurkeztean edo maitemindu honek maite zuen dama deskribatzean ere.

Imitazioa euskarri duten Oihenarten neurtitzetan ñabardurek, xehetasunek egiten dute agerrera. Honela, Etxeparek eraikitako maiteminduak beti “andre eder” bat maite bazuen, Oihenartek eraikitakoak, Margarita, Argia, Maitena, Xuria, Graziana, Beltxarana, Joana... maite ditu: andre izen arrunt eta orokorretik berezitasunen bat, xehetasunen bat, zehaztasunen bat adierazten duen izen berezira igarotzen da. Berdin jokatzeko du adjektiboarekin. Etxeparek zerabilen “eder” hori zehaztu egiten du: neurri eta proportzio jakin batzuetara ekartzen du Oihenartek. Hitz batean, deskribatu egiten du “eder” adjektiboa. Deskripzio horretan ere ez dago originaltasunik, jada tradizioa zuen kanona darabilelako andre ederraren erretratua osatzeko: gorputz atal bakoitzaren neurri, proportzio edo, hala dagokionean, kolore eta abar zehazterakoan, maitasun poesian ezarrita zegoen patroiarri eusten dio. Egin ere, ezin egin zezakeen besterik bere poesiaren zimendu imitazioa eta arauak jarraitzea zituen Oihenartek. Haatik, dama eder guztien kanona berdina izanagatik, guztiek ezaugarri fisiko berdinak izanagatik, adierazpen-modu desberdinetara jo zuen nolakotasun horren berri emateko:

“Gerri meharra” (X,12) badio behin, “gerri hertsia” (XIII, 31) esango du hurrengoan; “mazelak xuri-gorri” (XII, 31) badio behin, “ahutz-araldea /.../ ezt’ igeltsu, ezta zilar / bana kristal-ordea” (XIII, 41-44) dio beste batean; “sudurr’ oro zilarra” (XII, 30) erabili ostean, “Oi! zerik du sudurra! / ez egui’ ez apurra: / xorhi, begi-hontgarri” (XIII, 49-51) erabiliko du; “perla hutsez bidarra” (XII, 32) adierazpenaren ondoan, “Bidar-hori behala / nola boli zotala” (XIII, 65-66) aurki daiteke; “Ezpainak badiduri / dela koral-isuri” (XII, 33-34) atzeman eta gero, “Ezpainak arros’ orri / gorriak bezain gorri” (XIII, 53-54) atzemango ditu...

Oihenartek berebiziko arreta jartzen du esateko moduan. Esan behar duena, edozein kasutan, ezarrita dago eta ezarrita dagoen horri atxikitzea da bere borondatea eta jomuga. Dama ederra, adibidez, finkatuta zeuden kanoenen barnean deskribatzen du. Kopia bakar batean baino gehiagotan deskribatzen du, gainera, kanon horien barnean eta, horrenbestez, dama honen gorputz-atalen ezaugarri berberak ematen ditu behin eta berriz. Haatik, adierazpen-modu desberdinez baliatzen da. Irudikatutako objektua figura erretorikoren batekin (konparazioa, metafora...) janzten duenean ere, ordu arteko euskal poesian -ezagutzeko zoria izan dugun poesian, behintzat- ezezagunak ziren hitzen erabilera jotzen du: korala, bolia, urrea, zilarra, perla, igeltsua, belusa, kristala, aran-lilia...

Laburbilduz, berrikuntza honetako hitz giltzarria fintasuna da.

Fintasuna, forma metrikoetan: bertsogileak, hizlariak ez bezala, neurri batzuetara bildu behar ditu bere ideiak, murrizketa metriko eta prosodikoek gobernatzan dutelako bere lantegia. Bestalde, neurri batzuetara biltzeko ariketa ezin du nolanaahi mamitu: lizentzia metrikoen erabilera jakin bat egin behar du, errima aberatsaz baliatu behar du... Hitz gutxitan esanda, neurtitzaren alderdi foniko-erritmikoa arau estu batzuen barnean eraiki behar du: zeregin hori betetzeko fintasuna ezinbestekoa du.

Fintasuna, halaber, egitura linguistikoak desbideratzean; izan ere, egitura linguistiko arruntetik aldentzea nahitaezkoa da, baina neurri batzuen barnean. Eguneroko mintzairaren egituratik urrutiratu beharra dago, ez ordea, egokitasuna, decorum-a, urratu arte.

Fintasuna, hiztegian: ezin erabil daiteke eguneroko erabilerak higatu duen hitza, ezta ere, behin eta berriz, errepikatu adierazpen berbera.

Fintasuna, figura erretorikoetarako egindako aukera linguistikoetan...

Garai bakoitzak balore estetikoek kode propioa du. Decorum-a, bada, garai bakoitzeko sentsibilitatearen eta gustu estetikoek isla da, baita, idazleak bere idazlanaren hartzaila ideal moduan dauzkan haien izaera eta baldintzena ere.

Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae* “eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraitzeko materia” (79. or.) izateko eman zuen: euskaldun guztiei zuzendu zien bere idazlana eta ez euskaldun jakin batzuei, ez baitu inolako murrizketarik ezartzen.

Zenbait zantzuri jaramon egiten bazaio, ez dirudi Oihenartek euskaldun guztiak gogoan izan zituenik. Honela dio neurtitzon aurretik doan hitzaurrean: “hauen argitalpena egitean ere, egingo baita, ez dut olerkari prestuek bere liburuekin irabazi ohi duten ohorean partzuer izan nahi” (302. or.). Irakurketa bat baino gehiago bideratzeko ahalmena dute hitzok. Apaltasuna erakusteko hauta zitzakeen, edo erantzukizuna gutxitzeko edo... Hitzzaurreko adierazpenok aipatutako zereginak betetzeko izan zitezkeen ukatu gabe, –harrokerietatik urruntzeko, nahiz kontu errendatzea arintzeko–, beste berriren bat jakinarazteko bitarteko ere izan zitezkeen: gehiengoei iritsiko zaien argitalpena ez dela izango. Hitzzaurrean argitalpenaz egileak aditzera emandakotik, egin zuen argitalpena igaroz, hona J. Vinson-en iruzkina:

L’absence de tout nom d’imprimeur ou de libraire indique à mon avis que le livre ne fut point mis en vente et qu’il en fut tiré seulement un très petit nombre d’exemplaires qu’Oihenart distribua à ses amis¹³.

¹³ VINSON, Julien (1983): *Essai d’une Bibliographie de la Langue Basque*, Caja de Ahorros Vizcaina, Bilbao, 100. or.

J. Vinson-en iruzkinaren argitan irakurtzen bada Oihenartek hitzaurrean esandakoa uler daiteke hain ale gutxi inprimatuta eta zabalduta nekez lortuko duela oso ezaguna izatea eta betikotasuna lortzea.

J. Vinson-en iruzkinak, Oihenartek hitzaurrean esandakoak, Oihenartek arte poetikoan poesiaz ematen duen ikuspegiak eta euskal poesiaz egiten duen kritikak, Oihenarten biografiak (dela bere jakintza-maila, dela gizartean lortu zuen statusa...), guztiek norabide bererantz seinalatzen dute: gehiengoan aitorenaren bila ez zela ibili. Horregatik, uste izatekoa da bere idazlanaren har-tzaile idealentzako argitalpena egin zuela soil-soilik. Alegia, bere arte landua “atzemateko” eta “dastatzeko” sentiberatasuna eta jakintza-maila duen kultur elite euskaldunarentzat. Kultur elite horrekin partekatu nahi du bere idazlana, neurtitz hauek biltzen duten arteaz jabe daitezkeen gutxi batzuekin. Oihenartek eskuratu zuen mailak –kulturan, gizartean...– fintasuna eskatzen zuen eta uste izatekoa da bere harreman-munduak ere, hala eskatzen zuela.

Kode-aldaketa dago Etxepareren koplagingintzatik Oihenarten koplagingintza-
ra.

Asmo desberdinek bultzatzen dituzte idazlanok. Etxeparerentzat argitaratu dituen koplak bitarteko dira euskara idatziz emateko, jauzi kualitatibo hori eragiteko. Honela dio Etxeparek paratu dituen koplak Bernard Leheteri igortzen dizkionean, “inprimi erazi ditzazun eta zure eskutik orok dugun joia ederra, inprimiturik heuskara, orano izan eztena” (79. or.). Beste xede bat du Oihenartek: hitzaurrean bertan aldarrikatzen duenez, berrikuntza poetiko baten erakusgarri gisa argitaratzen ditu. Ez bata, ez bestea plazaratzen da poeta moduan: Etxepare lehen idazle bezala aurkezten da eta Oihenart lehen maisu bezala. Beren idazlanak moldiztegiara eramateko akuilu hizkuntza dute: inguruko hizkuntzek erakusten dituzten lantze-esparruak eman nahi dizkiote euskarari. Etxepareri dagokionez, euskara idazketaren iragazitik iragazi, inguruko hizkuntzek jadanik egina zuten bezala. Oihenarten kasuan, berriz, hizkuntza horietako poesia gobernatzen duten arauen parekoak diren arauetz baliatu euskaraz.

Mende luze bateko tartean bereizten ditu bi idazleen idazlanen argitalpenak eta eguneratu helburuak uztartzen: eguneratze horrek, hain zuzen ere, eskatzen zion kode-aldaketa Oihenarti. Gaiak, betikoak eta hizkuntza guztietan erabiliak ziren, –maitasuna, erlijioa–, gaion kodeketa-modua zen eguneratu beharrekoa. Garaiko kultura-eliteak zuen ikuskeraren eta ikuskera hori adierazteko baliatzen zituen konbentzio literarioen arabera ondu behar ziren neurtitzok.